



NER DEKALOGOIA

NER DEKALOGOA

Ner Dekalogoia Ner Group-en diskurtsoaren corpus nagusia jasotzen duen dokumentua da, eta bertan daude bilduta bere balio-proposamen diferentzialaren indar-mezurik adierazgarrienak.

Komunikazio-tresna da Ner Group-entzat, diskurtsoa eta komunikazio-kanalak indartzen laguntzen diona. Horrez gain, erakundeei laguntzeko tresna da, eta osorik nahiz laburtuta erabil daiteke, egokien iritzitako euskarrietan eta bakoitzaren idiosinkrasiari ongien datozkion diskurtsoko elementuekin.

ZER DA NER

Erakundeak antolatzeko modu bat, harreman-estilo propio, berezi eta bereizia. Pertsonak ardatz dituzten proiektuak; bezeroa, efizientzia eta gizartea helburu; eta balioak oinarri:

ASKATASUNA

- ... pertsona libre, kontziente, konprometitu eta arduratsuez osatutako erakundeak...
- ... egitura hierarkikorik ez dutenak...
- ... malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna dituztenak...

ERANTZUKIZUNA

- ... pertsonen erantzukizuna erakundearen zehaztutako helburua, bezeroak, efizientzia eta guztion ongia kontuan hartuz sustatzen duten erakundeak.

KONFIANTZA

- ... dinamika irekiak, parte-hartzaileak eta inklusiboak sustatzen dituzten erakundeak...
- ... pertsonak erabakien erdigunean kokatuzten dituztenak...

GARDENTASUNA

- Informazio guztia pertsona guztiekin partekatu eta horren ulermena sustatzen duten erakundeak.

KOMUNIKAZIOA

... entzutea praktikatzen duten erakundeak, pertsonak ere parte hartu eta solasaldia eta elkarrizketa susta ditzaten...

AUTOGESTIOA

Autogestioan oinarritutako egituren bitartez, hitza eta botoa elkarrekin harremanetan eta batera jarduten duten talde guztietako pertsonekin partekatzen dituzten erakundeak.

ETIKA

Oinarri etiko sendoak dituzten erakundeak, barrura zein kanpora begira gizarte gizatiarra, zuzena eta jasangarria lortzen laguntzen dutenak, negozio-estrategiaren barruan ordu estrak kontuan hartzen ez dituztenak... kaleratzeak egoera ekonomiko zailei aurre egiteko irtenbidetzat erabiltzen ez dituztenak...

Berariazko zailtasun-egoeretan barne-laguntza emateko erakundeen arteko lankidetzari eusten diotenak
gizarte-aldaketa globaletan laguntzen dutenak...
... balioei lotutako portaeretan koherentzia sustatzen dutenak...
... erakundeen arteko lankidetzara sustatzen dutenak...

ETORKIZUNeko IKUSPEGIA

... Etorkizuneko helmuga bera partekatu eta elkarrekin helburu ebolutibo bat eraikitzen duten erakundeak.

EFIZIENTZIA

Langileen garapen pertsonal eta profesionalaren mesedetan helburuak modu eraginkorrean lortzen dituzten erakundeak...

ELKARTASUNA ETA GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

... emaitza ekonomikoak bertako langileen artean banatzen dituzten erakundeak...
... soldata-aldean irizpide orekatua ezartzen dutenak
... urteko ekoizpen-orduen % 2 gizarteari bideratzen diotenak...
... etekinen % 5 gizarteari bideratzen diotenak...

